



GABONETAKO EKINTZAK

Kontzertuak, umeentzako ekintzak eta Olentzeroren bisita, Gabonak ospatzeko

Kontzertuak bihar hasi eta egunero izango dira, Gabon gaua bitartean. Umeentzako ekintzak ostiraletik aurrera antolatu ditu Udalak. Erronda eta txarangaren irteera ere ez dira faltako.

FAMILIA eta lagunekin juntatu, eta elkarrekin afaldu eta bazkalduz ospatzen dituzte askok Gabonak. Beste batzuk berriz, Olentzeroren bisitarekin, oporrekin edo urte bukaerako festarekin erlazionatzen dituzte iristear diren festa hauek. Modu batera edo bestera, asko dira Gabonak ospatzeko erak. Hernanin esaterako, Udal, talde, elkarte eta abesbatzak dira egun hauek girotzeko kontzertu eta ekintzak antolatu dituztenak.

Bost kontzertu, eta kale bueltak, Gabon gaua bitartean

Herriko abesbatza eta musika taldeek eskainiko dituzten kontzertuak protagonismo handia izango dute datozen egunetan. Bihar esaterako, hiru kontzertu izango dira, herriko gunen ezberdinetan. Herriko talde gehien bilduko dituen Gabon kanten jaialdi ospetsua izango da. 20:00etan hasiko da San Joan Bataiatzailea parrokian, eta ondorengo talde eta abesbatzek hartuko dute parte: Elizatxo ikastola, Inmakulada ikastetxea, Musika Eskolako abesbatza eta soka taldea, Goiz Eguzkiko abesbatza, Parrokiko abesbatza eta Kantuz abesbatza.

Ostiralean Ozenki abesbatza eta Musika Bandak eskainiko dute kontzertua Milagrosan, 19:45etan; eta Gabon gau egunean, Parrokiko abesbatzaren txanda izango da, 17:00etan, Agustindarren elizan.

Olentzero herrian barrena umeak agurtuz ibiliko da Gabon gau egunean. Arratsaldeko 18:00etan abiatuko da, Plazatik.

Horrez gain, Gabon kantak kantatzen ibiliko dira ostiralean, Musika Eskolako ikasleak. Eta Gabon gau egunean, baserriz baserri olentzeroarekin kantuan ariko dira Iraulio Panttalone bertso eskolak antolatuta. Horrez gain, Kantuzek antolatutako kale buelta, eta Musika Bandak deitutako Gabon gaueko erronda ere izango dira.

Eta nola ez, olentzero ere ibiliko da Gabon gau egunean Hernaniko kaleetan barrena; 18:00etan abiatuko da Plazatik.

Umeentzako zinea, antzerkia eta tailerrak

Udalak antolatuta, umeek ondo pasatzeko aukera ere badute Gabonetan. Ostiralean haurrentzat tailerra antolatu dute Udaleko arkupean, 16:30etan.

Haurrentzako zinea ere izango da abenduan. Hilaren 27 eta 28an, *Kika superbrija*. *El viaje de Mandolan* pelikula jarriko dute 5 urtetik gorako umeentzat, Biterin. Egun bakoitzean sesio bat izango da, 17:00etan.

Azkenik, urtarrilaren 3an *Bolaluma* antzezlan antolatu dute Biterin, 18:00etan. II



Doinu Zale musika eskolako ikasleek eta Ozenki abesbatzakoek Milagrosan eskaini zuten kontzertua ostiralean. Bihar Ereñotzuko elizan dute.

GABONETAKO EKINTZAK

Abenduak 22

18:00 Gabonetako kontzertua Musika Eskolakoek. Biterin.

19:00 Doinuzaleko ikasleak eta Ozenki Abesbatza. Ereñotzuko elizan.

20:00 Gabon kanten jaialdia San Joan Bataiatzailean.

Abenduak 23

16:30 Haurrentzat tailerrak. Udaleko arkupean.

17:00 Gabon kantak kalez kale. Musika Eskolako ikasleak.

19:45 Ozenki Abesbatza eta Musika Banda. Milagrosan

Abenduak 24

15:00 Baserriz baserri olentzeroa. Plazatik aterata.

17:00 Parrokiko abesbatza. Agustindarren elizan.

18:00 Olentzeroa kaleetan barrena. Plazatik aterata.

18:30 Gabon gaueko kale buelta. Kantuzek antolatuta. Milagrosatik aterata.

20:00 Gabon gaueko erronda. Musika Bandak. Plazatik.

Abenduak 27

17:00 Haurrentzat zinea Biterin.

Abenduak 28

17:00etan Haurrentzat zinea Biterin.

Abenduak 31

17:30 Urtezahar eguneko erronda. Ohitura zaharrak abesbatzak.

Urtarrilak 1

01:30 Incansables txarangaren irteera

Urtarrilak 3

17:00 Antzerkia haurrentzat. Biterin.

SANTO TOMAS, GAUR
Errugbi eta futbol taldeek txistor postua jarriko dute gaur, uholdeen kalteei aurre egiteko

Postua 10:00etatik aurrera, Plaza Berrin. Beste lau tokitan ere, ospatuko dute.

AZAROAN 6ko uholdeen kalteak jasaten ari dira oraindik Hernaniko futbol eta errugbi taldeak. Horri nola-bait aurre egiteko asmotan, txistor postua jarriko dute biek, elkarrekin, Plaza Berrin. Helburua da, jendeak txistorra janaz bi taldeei laguntzea. Postua goizeko 10:00etatik aurrera jarriko dute Plaza Berrin, eta dei egin diete herriarrei gerturatu eta ogitarteko bat janaz, laguntzeko.

Goiz Eguzkin txistor-jatea, goizean

Goiz Eguzkiko kideek ere txistor jartea egingo dute gaur goizean, elkartean. Ondoren, kaleko eta mahai jokoetako sari banaketa egingo dute, udazken eta neguko txapelketetako.

Herritarrei gonbidapena, Inmakulada ikastetxean

Inmakulada ikastetxean goiz osoan zehar ospatuko dute. Txistorra talo eta ogitartekoak ez dira faltako, eta ikasleek jarritako postuetan barazki eta gozoak izango dira aukeran. Bertan ateratako dirua behartsuei laguntzeko izango da, eta dei egin diete herritarrei, ikastetxera gerturatzeke.

Sagastialden, arratsaldean ospatuko dute

Bazkide eta inguruko guztiak gonbidatu dituzte Sagastialde elkartekoek gaur arratsean txistorra jatera; 19:30etatik aurrera.

Gazte Txokoko neska-mutilak, azokara

Azkenik, Gazte Txokoko neska mutilak, begiraleekin batera, Donostiako Santo Tomas azokara joango dira. II



2011 likidazioa

Latex eta viscoelastica koltxoiak. Ohe artikulatuak eta motordunak

Koltxoietan lehenengoak gara.
Orain duzu aukera!

Astelehenetik ostiralera:
9:30 - 13:30 16:00 - 19:30
Larunbata: 10:00 - 14:00

zure koltxoi denda hernanin
15 urte atsedena eta armairuak neurrira zuri eskaintzen

Agustindarren, 6 (Eroski berriaren ondoan) • Tel.: 943 556 201

TELEFONAK

● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622
● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
✚ **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Etxebeste** Elkano 2 - 943 552087 ● **Gauz:** **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077

EGURALDIA

GAUR Zaparradak espero badira ere, aurreko egunetan baino euri gutxiago egingo du. Tenperaturak gorako joerari eutsiko dio: Min.10° / Max.13

BIHAR Hobera egingo du. Goizean euria egingo badu ere, arratsaldean ostarteak nagusituko dira. Tenperaturak epeltzera egingo du: Min.11° / Max.15°

UDALA - Hamaikabati erantzuna

«Tunelik egingo ez dela dioen eskaera ofizialik ez dugu jaso»

Udalak dio noizbait eskaerarik egongo balitz, orain arteko proiektua defendatuko duela, tunela aurreikusten duena.

«Igartzagainako tunela kentzeko erabakiaren aurrean, Gobernu Taldearen isiltasuna ulertezina da» zioen Hamaikabat alderdiak igandean, Kronikan argitaratutako prentsa oharrean. Hamaikabaten esanetan, «Diputazioak barianteko proiektua moldatzea erabaki du, Portu auzotik pasatzen den tunela kenduta». Horrez gain, Gobernu Taldeak ez duela gaia Hirigintza Batzordera eramateko asmorik azaldu zuen oharrean.

Gauzak horrela, Gobernu Taldeak egoera argitzen duen prentsa oharra bidali du Kronikara. Gobernu Taldeak dio, beraiek ez dutela jaso proiektua aldatu egingo denaren informazio edo eskaera ofizialik, eta are gutxiago, tunelik egingo ez denarena. Ondorioz, ez dutela Hirigintzara eramateko ezer azaldu dute.

«Udalak betiko proiektua defendatuko du»

Horrez gain, Gobernu

Taldeak dio hasierako proiektua defendatu dutela beti, ados daudelako, eta etorkizunean ere, hala egingo dutela: «noizbait tunela kentzearen eskaerarik egingo balute, Udalak orain arteko proiektua defendatuko du, tunela egitea beharrezkoa ikusten baitugu».

Azkenik, Hamaikabati adierazi nahi dio prentsara jo aurretik, gauzak etxean kontrastatzea ez legokela gaizki, zurrumurruei kasu egin beharrean. II

TXANTXANGORRI - Ibaizabalgo Gabonetako Saria



Medrano txapeldun, 74 arrantzalaren artean

Ibaizabalgo Gabonetako Sariaren 20garren edizioa jokatu zen larunbatean Bizkaian, eta Gipuzkoako, Kantabriako eta Bizkaiako arrantzaleek hartu zuten parte. Bertan izan ziren Txantxangorriko lau ordezkari, hala nola, Luis Adrian, Ignacio Irigoyen, Javier Egibar eta Jose Luis Medrano; eta emaitza ezin hobea lortu zuten. Sarietan parte hartu zuten 74 arrantzalaren artean, onena, Txantxangorriko Jose Luis Medrano izan zen. Garaikurra eta Gabonetako saskia irabazi zituen. II

ELKANO 17 EMAKUME ZENTROA - Sukaldaritza ikastaroa



Lehenengo platera, bigarrena eta postrea; Gabonetako menua prest dute ikastaroan parte hartutako emakumeek

Elkano 17ko Emakume Zentroak antolatuta, Gabonetako sukaldaritza ikastaroa eskaini zuten astelehenan Luis Irizarren bi ikaslek. Menu konpletoa egiten erakutsi zieten gerturatutako emakumeei. Aurreneko platera: olagarro terrina, piperrauts balsamoarekin. Bigarren platera: Wellington solomilloa, sagar saltsarekin. Eta postrea: Idiazabal gaztaren soufflea, menbrillo eta intxaur saltsarekin. Hortaz, Gabonak iristea besterik ez zaie falta, ikasitakoa praktikan jartzeko. II

◆ JOCC ZIKUÑAKO AMA

Kuota eta lizentzia ordaintzeko azken eguna, abenduak 30

Elkarteko kuota ordaindu eta Federazio Lizentziak egiteko bi modu jarri dituzte JOCC Zikuñako Amako kideek. Ordainketa helbideratu nahi dutenek, 20 digituak abenduaren 23a baino lehen eman behar dizkiote diruzainari. Eta zuzenean ordaindu nahi dutenek, 21010041030126160852 kontuan sartu behar dute dirua. Ordaintzeko azken eguna, abenduaren 30a da. II

◆ EMAKUMEA PELOTARI-FINALA

Hernaniko bi bikote aurrez aurre etzi, finalean: Tijero-Beldarrain/Arriola-Ugalde

Hiru pala partidu jokatu dira ostiralean Hernaniko pelotalekuan, tartean, Emakumea Pelotariko bi final. Txapelketa honetako Bigarren mailako finalean hain zuzen, Hernaniko bi bikote izango dira aurrez aurre: Tijero-Beldarrain eta Arriola-Ugalde. Jaialdia Gipuzkoako Txapelketako partidu batekin hasiko da, 19:00etan. II

◆ ULTRAFONDOA

24 orduko mundialean izango da Salillas

Denboraldiko azken ultrafondo proba jokatu zuen Salillasek asteburuan Bartzelonan, 24 Hores d'atletismo lasterketa hain zuzen. 7 ordu korrika pasa ostean, gaizki sentitu zen eta erretiratu egin behar izan zuen. Hala ere, pozik da atleta hernaniarra, Antibeseko 6 egunetako emaitzarekin 24 orduko mundialean parte hartzeko deia jaso baitu; eta hori zen bere helburua. II

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

I URTEURRENA

Maria Pilar Loyarte Erroizarena

2010eko abenduaren 21ean hil zen, 84 urterekin

-Goian Bego-

Maria Pilarren senitartekoek urtebetetze meza eskaini nahi diogu eta bertara gonbidatzen zaituztegu ezagutzen zenuten guztiak.

Urteurreneko meza, IGANDEAN, goizeko 12:00etan, San Joan Bataiatzailearen parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2011ko abenduaren 21ean



❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

YOLANDA ESTETIKA ZENTRUA. Fotodepilazioa, eguberrikako prezio bereziak 2X1. Beharpenak aurpegi tratamenduetan. Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailea. **Atzieta 2, behea.** Tel. 943 55 32 78.

Alicia C.C.: Modu pertsonalean eta profesionalean garapena lortzeko: **Coaching, PNL, erlajazioak, Flores de Bach, hipnosia...** Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)

Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

JOSU ALKORTA harategia

**NIGAN IZANDAKO KONFIDANTZAGATIK.
ESKERRAK BEZERO GUZTIEI.**

**2012. URTEA ONDO HASTEAK OPA DIZUET.
ETA ZER HOBETO NIRE DENDAKO
HARAGIA DASTATUZ.**

Nafar kalea 11 Tel.: 943 551 681